BESTELAKO XEDAPENAK

ETXEBIZITZA, HERRI LAN ETA GARRAIO SAILA

146

AGINDUA, 2011ko abenduaren 16koa, Etxebizitza, Herri Lan eta Garraioetako sailburuarena, Ane Abarrategi Zaitegi andreak garraio arloko prestakuntzarako TB-1 bekari uko egiteko aurkeztu duen idazkia onartu, eta beka Rocio Larrea Basterra andreari esleitzen diona.

Etxebizitza, Herri Lan eta Garraioetako sailburuaren 2011ko azaroaren 11ko Aginduaren bidez, Garraio Zuzendaritzaren TB-1 eta TB-2 prestakuntza-bekak esleitu egin ziren (beketarako deia 2011ko urriaren 10eko Aginduaren bidez egin zen).

2011ko abenduaren 15ean, Ane Abarrategui Zaitegi andreak TB-1 bekari («Europaren eta estatuaren garraio-politika: joerak, laguntza- eta sustapen-programak, joerak eta orientabideak. Mugaz gaindiko garraioko jarduketak eta tresnak: Arku Atlantikoa eta Frantzia eta Euskadi arteko mugaz gaindiko harremanak» izenburua duenari) bekari uko egiteko idazkia aurkeztu zuen, eta deialdiaren oinarriei jarraituz, uko egiteko idazkia onartu eta onuradunarekiko harremana iraungitzat jo zen. Aldi berean, Garraio Zuzendaritzak, 2011ko urriaren 10eko Aginduari jarraituz, TB-1 beka hartzeko beste izangai bat aukeratu du.

Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Sailak aginpidea du espediente honi buruzko ebazpena onartzeko, 1981eko ekainaren 30eko Jaurlaritzaren Legearen 26. artikuluak, Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Sailaren egitura organiko eta funtzionala ezartzen duen azaroaren 24ko 607/2009 Dekretuaren 9.1.f) eta g) artikuluak, eta unibertsitateko tituludunak prestatzeko Garraio Zuzendaritzaren bi bekatarako deia egin eta haien oinarri-arauak onartzeko Etxebizitza, Herri Lan eta Garraioetako sailburuaren 2011ko urriaren 10eko Aginduak ezarritakoaren ondorioz (EHAA, 200, 2011-10-20).

Beraz, aipatutako xedapenak, horiekin bat datozenak eta aplikatu beharreko gainerakoak ikusirik,

EBAZTEN DUT:

1. artikulua.– Onartzea Ane Abarrategui Zaitegi andreak 2011ko azaroaren 11ko Aginduaren bidez esleitu zitzaion TB-1 bekari uko egiteko aurkeztu duen idazkia. Bekaren xedea: Europaren eta estatuaren garraio-politika: joerak, laguntza- eta sustapen-programak, joerak eta orientabideak. Mugaz gaindiko garraioko jarduketak eta tresnak: Arku Atlantikoa eta Frantzia eta Euskadi arteko mugaz gaindiko harremanak.

2. artikulua.– TB-1 beka Rocio Larrea Basterra andreari esleitzea.

3. artikulua.– Bekadunak Euskal Autonomia Erkidegoan egin beharko du lana, eta Garraio Zuzendaritzako arduradunak bekaren edukiari, hura burutzeko lekuari, jarraitu beharreko metodoei eta lana burutzeko bestelako alderdiei buruz ematen dizkion artezpideak jarraitu beharko ditu.

Beka, deia egiteko aginduan xedatutakoari jarraituz ordainduko da; eta lehenengo ordainketa egiteko, hamaikagarren oinarri-arauan ezartzen den bezala, ezin denez beka eta ordaindutako lan bat, biak batera izan, Garraio Zuzendaritzako zerbitzu teknikoek bekadunak ordaindutako lanik ez duela egiaztatuko dute, eta baldintza betetzen ez badu, agindu hau indarrik gabe utziko da.

4. artikulua.–Agindu hau interesdunari jakinaraztea, eta adieraztea, ebazpen honek administrazio bidea amaitzen duenez, nahi izanez gero, administrazioarekiko auzi errekurtsoa aurkez daitekeela soilik, Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietako Salan, agindu hau jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera kontatzen hasita, bi hilabeteko epean.

Vitoria-Gasteiz, 2011ko abenduaren 16a.

Etxebizitza, Herri Lan eta Garraioetako sailburua,
IGNACIO MARÍA ARRIOLA LÓPEZ.